

Beste gazte bat akatu digute

Alderdi, 279. zk., 1972-10.

Ogei egun barru, iru gazte akatu dizkigute.

Bi gertakizun oietan ageri-agerian dago abertzale gazte oiek eskarmentu utsez, gogorkeriz, illak izan direla. Au da Frankismoak 36 urte luze oietan, su eta gar, erakutsi duen legea; euren naiera makurtzen ez den guzia ixildu arazi, katez lotu, eta besterik ezin duenean tiroz il.

Askatasun bide guziak gogorak izaten dira, eta gurea ere alaxe da.

Gogorkeri oiek, ordea, zapaldu naiean dabilten errian gogo-indar sendo bat sor arazten dute, eta gazteak ernetzen dituen zigorrak erria elkartzen eta batzen dute, eta gazteak ernetzen dituen zigorrak erria elkartzen eta batzen dute. Gertari onetan, ibaiz auzko eta onuzko gazteak elkartzeko bide berriak sortzen ari zaizkigu. Emen, Urdaxen, joan den illeko 20an akatu diguten Juan Antonio Aranguren dala-ta, ara zer orri zabaldua izan den ipar-Euzkadin:

"EUZKADIKO ERRIARI DEIA (Ipar eta Ego)

"Gogora asi nai diogu bein-betikoze gure erritarrei:

"1go Ez direla Euzkadiko nagusi, maister uts baizik. Ala bizi diren etxetik noiz nai boteak izan didatezkeala (ikus: Pirineotako Erabakia, Francoren dekretuak eta abar).

"2en Karabineroak, guardiazipil-txapelokerrak, aduaneroak eta jendarmeak bakarrik dute nagusiaren eskubiderik gabe probintzi batetik bestera pasa naiean arapatzen diren euskotar guziak tiroz botatzeko eskubidea.

"3en Tiroz botatuko bat iltzen denean ez du inork iltzaillea zigortzerik izango; Kolonietako legeak dion bezala, erritik kanpoko funtzionarioak dira bertako eta menpeko direnen biziaren jabe.

"4en Euskotarrak ez dira euren aberri baten diña; bestela, bertan arkitzen duten polizi eta guardiazipilaren aberria izango da euren ere.

"5en Euskotarrak ez dute euren ikazkisunak euskeraz egiteko eskubiderik; bestela, errian jarrita dauden epailleen eta polizien eta guardiazipilaren izkuntzan egin bearko dituzte; ala, beraz jakingo dituzte garaia eltzen denean esango zaizkien espetxe edo eriotz zigorraren zergaitiak.

"6en Euskotarrak ez dute euren erria zapaltzera datozen aurka altxatzerik izango; bestela, nagusiarekin elkar alegindu bear dute sortzez direnak izatez utzi eta lenbait leen suntzituak izan ditezen.

"Faisanes ugartearen egiña, 1972go urrillak 12, Guardiazipilaren Zaindaria den Pilarko Amaren eguna.

"*Paco Matavasco*, gobernadorea; eta *Gilles du Flic*, prefektoa".